

Oin bat bestearen aitzinean?



KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Gure semea irakurtzen hasi zelarrik eskolan, bere adineko liburu bila aritu ginen. Horrela agertu zitzaigun etxean frantsesezko *Sami et Julie font des crêpes* ("Samik eta Julieek matahamiak egiten dituzte"), E. Massonau eta T. Bontéren lana. Izenburua leitu eta kontrazala ezagutu orduko ("istorio motz, irri-garri eta biziki irakur erraza"), semeak begirada laidoztatua botu zigun, erranez: "Eta zergatik ez 'Samik eta Julieek oin bat bestearen aitzinean ezartzen'? Ez du deus balio liburu horrek, ezagun du!". Kontzientzia hartze ustekabekoa, literatura maite dugun burasoontzat! Alde batetik, gure haurra gaitzitu genuen batere interesik ez zuen liburua proposatuz, irudiz ukatzen geniola barne gose duina eta izate konplexua; bestaldetik, nehola ere literarioa ez zen liburua aurkeztu genion, ahalkegarriki, etxeko apalategiak heldu-obra zoragarriak beteak genituelarik.

Semea galdekatuz, ulertu genuen abenturazko narrazio epikoak amesten zituela, adiskidetasun miresgarriak konstatuko zizkietenak, etxetik eta herritik kanpoko bizipenak esperimentaraziko zizkietenak, jende izugarri batzuekin identifikatzeko posibilitatea emanen zizkietenak. Sami eta Julie bazterrera utzirik, jo genuen R. Dahl, J. London, R. L. Stevenson eta A. Dumasen obrengana, frantsesez bezala euskaraz, semeak ordu arte geure baitan zeukan konfiantza horrela doi-doiatarik salbatuz.

Ihardukitze hark frogatu zidan balio duela zorrotz izatea "haur eta gazte



PAULA ESTEVEZ

literatura" deitu sailean agertzen denarekin. Hain zuzen ere, alor horretako ekoizpen gehienak, dudarik gabe, helburu hezitzailea du: agertu denez geroztik, xede didaktiko eta moralizatzailea dauka. Azken hiru hamarkadetan aldaketa handiak gertatu dira, bistan dena, hizkuntza nagusien eremuan zein gurean, X. Etxaniz eta M. Lopez Gasenik, besteak beste, erakutsi bezala. Egun, gai psikologiko, afektibo, sozial eta politiko ugari landuak dira haur eta gazte literaturan, bururapenak ez dira gehiago baitezpada hetsiak eta zoriontsuak, eta autoreek egiazki zaintzen dute beren estiloa.

Halere, egungo haur eta gazte liburu frankok balio moral garai-kideak bideratzea dute jomuga: jazarpena, diskriminazioa, bazterketa gaitzesgarriak direla, elkar bizitza sano eta sendoa sustatu behar dela... Ez dira hainbeste ongia eta gaizkiaren arteko jokoa gaingitzen dutenak, agerian ezartzeko jendea eta jendartea den bezala: jelsia, mendekua, fantasmak, neurritz goitiko pasioa, ideal erromantikoak, desobedientzia, ozarkeria, berekoikeria, itxaropena, etsipena, barkamena, urrikia, gerla, herioa, zuzengabekeria eta zuzentasuna bezalako gaiak fikzioaren, poesia-aren edo antzertiaren bidez barnatzen dituztenak ez dira ugari, ez euskaraz, ez beste mintzairetan.

Horrelako literatura amoral, epaitzera ez daramana, politikoki zuzena den kanonaz kanpokoa luke

gogoko S. Van Der Linden adituak, linean dagoen mintzaldi batean dioen arabera. Zergatik haur eta gazteak behartu liburu arin, atsegin eta azalekoak bakarrik irakurtzera? Zergatik ez pentsa gu bezalakoak direla, korapilatsuak, argiak eta sentsibleak, umore eta ironia gozatzailerak, estetika literarioei irekiak?

Barthesek dio, *Qu'est-ce que la critique?* ("Zer da kritika?") testuan: "Literaturak ez du ibiltzea ahalbidetzen, baina hatsa hartzea": ez, haur eta gazte literaturak ez du azaldu behar nola ezarri oin bat bestearen aitzinean edo nola neurtu urrats prestuak, baina nola arnasa hartu aske bilakatzeko. ●